

ZULOAGA

(1.870-1.970)

Busto de Zuloaga, en Eibar

(Foto David Urriola)



Aurten, Inazio Zuloaga eibartar artistaren ehungarren urte-burua dogu. Bere arte lanari buruzko zerbait esateko aukerako unea dala uste dogu, eta goazen zuzen zuzenean arira.

Zuloaga izango da munduan izen aundiena artzera eldu dan eibartarra. Eta eibartar aldetik, beste zenbait zertzeladarekin, lehenago be argitara emona dogu **Eibar** (N.º 25, 1959) eta **Egan** (4-6, 1962) aldizkarietan (1). Honegatik, oraingo honetan, nahiago dogu arte soilaren aldetik bakarrik begiratzea.

Izan be, asko be asko diskutitu da Zuloagaren arteari buruz, eta oindinok asko diskutitu beharko da hain lan aundia eta hain ospe aundia artzera eldu zan pintore honi buruz. Bere izena ez da berealakoan isilduko artearen kondairatik.

(1) **Zuloaga eibartarra** izeneko lan bat argitaratu zan C. D. Eibar-ko bofetinean, Junio 1961 zenbakiaren 14/15 orrialdeetan.

Zuloaga, Bilboko «Artistas Vascos» alkartearen sortzaileetakoa zan 1911-garrenean. Hemendik ikusi geinke gure mendearen asieretan sortu zan artearen euskal eskolari lotuta egoala. Baina, eskubidez bertakoa ba zan be, izatez ez. Izatez, beste bide batzuek urratu zituan; Etxebarria, Arteta, Olasagasti..., eta kidekoengandik oso urruti ebizen bi-deak. Bakarti baina erraifdoi agertzen jaku, bere entzutea munduaren lau aldeetara ondo zabaldua.

Bere gurasoak be artistak ziranez, jatorritik ekarren arte grina. Inungo eskolatera, eta ez inungo elkarte girora, inoiz ez zan benderatu; aitagandik artutako oinarriekin, ibiliz

eta ikusiaz artu eban bere bidea.

Bere ikastero nagusiak Paris-en egin zituan, 1890-etik aurrera. Gauguin-ekin oso adiskide egin ei zuen, baina bere jokararik ez eban artu. Bai, lehen ikastero haretan inpresionisten era orokar bat, gero, Espainiako klasikoak obeto ezagutzeari nahikoa baztertutik erabiliko ebana, paisaje soiletan edo izan ezik. Hori bai, irudiak baltz sendoz inguratzekeo era, Toulouse-Lautrec-enganetik etorkiona bizitza guztian erabiliko eban, baina Pissarro-ren jokarako koloreak eta egitura. **Nere aita** izeneko kuadroan garbi agertzen dana, esate baterako, betiko baztertutiko zituan. XIX-garren mendeari amaieretan hain eratu egoan modernismotik be edan eban, baina denborak pasatuaz, geroago eta gutxiago agertzen jake joera horretarako.

Espainiako klasikoak obeto ezagutzeari euren joeretara bihurtu zuen. Eta, honen artekoetan, kasik, Velázquez, Greco, Ribera eta Goya izan ziran bakarrik. Ez dogu ahaztu behar. Paris-ko egotaldian inpresionistengandik Greco behar dan legez ezagutzera eldu zanean, beste barik, Paris-tik Toledo-ra bidean ipini zala Orgaz Kondearen lur emotea ikustera.

Esan ditugunok maixurik onentzat artu zitalako, Paris-en ikasi eban inpresionista eskola atzera begira ipini eban. Eta, artean, estetika barriari sorketak daukan garrantziagatik, atzera begirtze hau dala-ta, kritikalarik asko jarri jakotzen kontra, eta artistengandik zer zer esanik be ez. Arteak bere historian zehar dakarren forma aldaketa, era barriari aurkitzea, koloreekin saio barriak egitea..., berba batean: sorkundera begiratzea. Gorenengo kritikotik askok, eta artistak zer esanik be ez, gaizki ikusi eban. Eta hemendikotik dituzte arrazoiak, aspaldiko ustetan geroago eta gorako doazen artisten izenen aurrean Zuloa-garren gutxitzea, jaxkitzea.

Gaien aldetik barri, kontuan izan behar dogu 98-garren gizaldi hartakoa zala, Cuba-rekin azken kolonialismoa (azkena ete?) galtzean, Espainia bertara begiratu eta bertako autokritika egin behar zala esaten eban haren artekoa. 98-garrentz haren eritziegaz ornidurik, eta euren artekoetatik Valle-Inclán eta Unamuno-gantik gehienbat, orduan asi zuten ikeragarrizko Espainia baltz ha ikusten. Eta, honetan tremendista bat izan zuen. Zezenak, toreadoreak, ijitoak, aundiki aberatsak, munstruak (lepo-oker, ipotxak eta abar), ziran berak kiusten zituana. Aundikiari eta mixeriari kritikak. Alde batetik, ez da arritzekoa eibartar langileen kemenak ezagutu eta ondorean hark ikustean holako izugarrikerietara joetea. Goi eta behe mutur biak ikutzen zituan, bitartekotik ez balitz legez. Honegatik, berak pintatu ebana, Espainian emoten zuen fenomeno bat zuen, baina inundika be ez Espainiako errealidadea.

Gero, pinturako teknika eritzi estu batzuetan euki eban, artea beraren uste orokarean bezala. Bere usteak kuadernu batean idatzita lagu zituan, 1925-eko esku-idazti batean: **Arteak zer da?** izenez, eta Lafuente Ferrari-k foto-kopiatutik argitaratu eban **La vida y el arte de I. Zuloaga** liburuan ikusi, XXVIII lamina).

Era barriari sorkunderari uko egin eutsan, eta hala be, bakar-bakarrik zutinik jakitzen da. Bere ahalmenen mugak ondo ezagutzen zituan eta bere gogo guztiarekin zintzo jokatutako eban berari zeritxon bidetik, eta barroko kutsuan jausi ba zuen be, bere jokabide zintzoagatik irautzen dau zutinik. Gainera, asko esatea litzake, baina ez dogu uste beharago joango danik.

Badauka bere alde ona, lehen aipatutako lau klasikoan joerak erabiltarren, estilo be-

rezi baten jabe egin zala, akademismo guztiak uxaturik.

Dibujante legtz, ikaragarritzko ona zan. Ondo dibujatu ondorean, gainean, pintatzen eban, dibujoakin gehiegi arduraturik.

Koloreen aldetik, inpresionismo tankeran egindako paisaje batzuk kendu ezker, klasikoen iluntasunera jotzen eban, arpegia edo gorputzaren parte batzuek argi dizdiratsuan ipiniaz, indar berezi bat emonaz. Gaietan bezala, koloreetan be konpuste aundiak ditu. Beretzat, Rusiñol-ek zinuan legez, bitarteko tintak desesperagarriak ziran.

Bere lanetan atmosferarik agertzen ez ebalako, inpresionismoko kritikoak esaten ei zetsen: «Zuk egiten dituzun pertsonajeak ez dabe arnasarik artzen». Eta berak, bein, erantzun ei eban: «Eta zer? Jaten daben ala ez be ez naiz arduratzen».

Zuloagaren elburuak pintatzeko era batera lotuak ziran, aurrez autatu eta erabagiatako modulo batzuen barruan. Hala be, inork ezin leike ukatu artista hau eta bere lana. Eibartarrok ezer gutxigaitik arrotzekoak ba gara be Zuloaga-gaitik, esango neuke, ez garala arrotu berak merezi daben neurrian.

Eta, esanak esan, esateko asko gelditzen da. Izan be, bere lana hain da ugaria, hain da sakona..., Artearen kondairan beti izango dau toki berezi bat. Eta bere lanik erruki-gabeenean be, beti aurkituko dogu eibartar baten ikusmoldea, euskaldun baten ikusmoldea. Ez pentsatu Euskal-Herriko gaia soilik erabilteak euskaldunago egiten gaituanik. Guk be izan geinke beste erriak ikusteko era bat, eta ikusteko era honek bere garrantzia izan Zuloagaren lanetan.

JUAN SAN MARTIN